

erdiko kaira

Ihesi Ihes txikia ere betea da

Bi Nafarroan eta bana gainerako sei euskal lurraldeetan. Ondorengo orriotan uda honetarako proposamenak dakartzagu, egun pasa egiteko, edo ordu batzuk igarotzeko, edo egun berean bat baino gehiago bisitatzeko... Guk osagaiak ipiniko ditugu, zeuk prestatu jakia nahi eran. Euskal Herriko txoko ezkutuak dira, turismo gidetan hain erraz aurkituko ez dituzun horietakoak. Baina ihesaldia eskatzen dutenak.





Lete (Nafarroa)

Erromanikoa bere apalean

PATXI LARRION

Argazkia: Josu Santesteban



duzu Iharteko monasterioa. Hiriburutik abiatuz gero, Arazuri pasa eta Ororbian Irurtzunera doan bidea (NA-7010) hartu behar duzu, handik bederatzik kilometrora, Ollarango sarrera baino lehen, Lete herrirako bidea hartu eta herri multzoa bistaratzen dugunerako ezkerrean Iharteko monasterioa ageriko zaizu, Nafarroako erromanikoaren biluztasuna aurrez aurre. XII. mendaren bigarren erdiko da eliza, Iharte, 1024an, Antso Nagusiaren garaian sartzten da historian, eta 1837ko desamortizaziora arte Iratxeko monasterioaren menpean egon zen. Mojak ziren Iharte bizitoki izan zutenak. Eraikina erromanikoa, baina absidea hornitzen duten pinturak gotikoak dira, XIV. mendekoak, ez dituzu erraz ikusiko, eliza oso gutxitan zabaltzen baitute.

OSTARTEAK Iharteko monasterioaren zeruan, urre-bidean da elizaren ondoko galsoroa, Lete herrian, ezponda batean artalde bat, txurrak dira. Elizaren atarian eserita emakume gazte bat, kolonbiarra, jadanik laurogeiak beteko ez dituen agure baten ondoan: *Andiatik etorri zen artzain hura, etxe horretan laketu zen*, sasiek aspaldi janzten dute bizitoki izandako eraikina.

Iharteko monasterioa, Nafarroako erromanikoaren biluztasuna aurrez aurre.

Iruñetik hogeik kilometrora, Nafarroako erromaniko minimalistaren adierazgarria


Leteko Ihartek asebate ez bazaitu, hurbil duzu Ollarango Arteta. Ulibarrenaren Museo Etnografikoa bertatik bertara duzu, hori beti dago zabalik. Ezkaratzean zura lantzen ari da *Uli*, laurogeiak ez ditu beteko aspaldi Ollaranen laketu zen Ulibarrenak. Alimaleko ondareak janzten du Artetako Museoa. Eskultore, artisau, etnografo, filosofo, *ni ezereen gainetik kulturaren langilea naiz*. Ulik beste ihesi bat merezi du. ■



Atxaspi Hotela

Bittiria 24
Lesaka (Nafarroa)
T 948 637 536

hotela@atxaspi.com
www.atxaspi.com

Larraine (Zuberoa)

Pistako uren jauzi miresgarria


Textua eta argazkia:

ALLANDE SOKARROS

EUSKAL HERRIAN eta hemendik kanpo ere, jende askok ezagutzen du Holtzarteko zaldaina edo zubixka. Holtzarteko basoan lan egiten zuten egurginek –haietatik asko italiarrak– altxatutako eraikin honek, Oladübiko arroila gainean 180 metrotik gora igaroarazten gaitu. Ahaztu ezineko zirra une bat!

Larraineko aldaparen behealdean kokatua den Lojibar ostatu inguruetatik abiatuz, bisitari tropelak egin ohi duen ibilbidea hartuko dugu hasiera batean eta hiru ordu laurdenen buru Holtzarteko zaldainerat iritsiko gara.

Alabaina, jende nahiko gutxi egiten duena egitea aholkatuko dizuegu, egun berean zirra aukera bi edukitzeko xedean. Hala, zaldaina pasa eta gero, Holtzarteko oihanean ondo markatua den xendatik gora egingo dugu. Hogei bat minuturen buru lurbide batekin topo egitean, honetan eskuin alderat hartuko dugu eta beste horrenbeste denboraren buruan zurez eginiko zubi batera helduko gara. Hor-



Pistako turrusta miresgarria. 40 metroko altueratik egiten du jauzi ur zuri indartsuak.

txe, goialdetik datorren erreka oso politaren eskuinaldetik gora egingo dugu, lehenik zuhaitzen artean eta aski laster larre gero eta zabalago batean, bidezidorra badelarik beti.

Horrela, zurezko zubitik ordu bat baino gehixeagoren buru, sekulako emozioa bizituko dugu Pistako ur-jauzi miresgarria bat-batean begi aitzinean edukita. Pista hitzak “ur-jauzia” esan nahi du zuberera zaharrez, “turrusta” gehiago baliatua delarik gaur egun. Anartean, guztiz miresgarria da ur-jauzi, pista, turrusta hau, 40 bat metroko altueratik jauzi egiten duelarik ur zuri indartsuak.

Paradisu antzeko leku honetan denbora bat geratu nahi duenak aukera hori izango du, Bortükariak mendi elkarteak berreraikitako artzain txabola zaharrak aterpea eskainiko baitio. Azkenik, jakin ezazu urte oro, ekainaren hirugarren larun-

bateko eguerdi aldean, hortik pasatzen baldin bazara, Pista peko jai egunean –bazkari xume bat– ongi etorria izango zarela. ■

Dive Tarpoon
urpekaritza

Kirol portua, A7 lokala
48992 GETXO (Bizkai)
Tel / Faxe: 94 4912577
divetarpoon@euskalnet.net
www.divetarpoon.com

Euskal Museoa

Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO
Tel. 94 415 5423
museoa@euskal-museoa.org • www.euskal-museoa.org



Oto Goien (Araba)

Bakarrik, ilunpean

OIHANE PEREA

Argazkia: Alex Larretxi



SINESTEZINA da. Gasteiztik hamar kilometrotara, hiriburuko mendebaldeko irteera horietako batean, N-1 errepidearen ertzean, estresaren arteria eta zainen parean, hortxe dago Los Goros. Martiodatik hiru bat kilometrotara dagoen Oto Goien herritik gora, Badaia mendizerraren magalean aurkituko duzu, eta begi ninietan grabatuta geratuko zaizu.

Ibilbidea nahiko simplea da: Oto Goienetik mendira doan bidea hartu eta ganaduentzako itxitura pasa behar duzu beste askotan

Los Goroseko leizean ez dago metalezko pasabiderik, ez eta argi fluoreszenterik ere. Baina begi ninietan grabatuta geratuko zaizu.

bezala, ondoren erreka gainetik igarotzen den zubia zeharkatu, eta zuzen jarraitu... Erreka harro lehorretik gora egin kilometro pare bat, eta bertan zaude. Heltzen zarenean begiratu urrutetik eta patxadaz begien aurrean agertuko zaizunari, ez eduki barrura sartzeko presarik.

Pertsonalki umetan buru-hezur erraldoia iruditu zitzaidan, baina tira, beharbada pirata filmen bat ikusiko nuen bezperan. Ez ahazteko moduko irudia behintzat bada.

Errekaren arroa lehor, eta kobazuloa lozorroan egoten da normalean, baina euri zaparrada handien ostean, edo elurra azkarregi urtzean, kolpera lehertzen omen da. Abisurik eman gabe isurtzen du ura, aho, belarri, sudur eta begietatik.

Barrura sartzea baldin bada zure asmoa, kontuz! Urte sasoi lehor bat aprobetxatu bisita egiteko, eta lasai, kobazuloak freskatuko zaitu eta.

Barruan ez dago metalezko pasabiderik, ez duzu izango argi fluoreszenterik, megafonoetatik inork ez dizu ezer esango, bakarrik eta ilunpean egongo zara. Eraman linterna, segapotoaren argiak ez baitizu balioko. Eta seguruenik ez zarenez espeleologoa, Erpurutxoren ipuinaz gogoratu! Hortik aurrerakoa zure esku. ■

Cuadrilla de Zuia
Zuiako Koadrila

Tel: 945 43 01 67
Bisita gidatuak: 945 28 38 28

www.cuadrillazuia.com

Araba Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Norbaitek Gipuzkoa
bisitatzen duenean,
etxeko atea
irekitzen ari
zatzazkio



Aurten 600.000 lagunek bisitatuko dute Gipuzkoa, hau da, zeure etxea. Eta gipuzkoarrok anfitrioi onen ospea dugulako bisitatuko gaituzte. Gipuzkoak duen kokapen geografikoak lagundu du horretan, igarolekua eta harrera-lekua baita. Orain, berriz, ospe horri eutsi eta sustatu egin behar dugu. Nola? Gure bisitariak ondo zainduz, eta turismoak duen garrantziaz jabetuz, kultura- eta ekonomia- aberastasunaren iturburu baita. Nork hobeto zuk baino.

www.gipuzkoaturismo.net



TURISMO
GIPUZKOA
SAN TEEKIA, SAN MAURIA
SAN PEDUEÑA, SAN GRANDE



donostia
Turismoa



euskadi ... made in



Donostia (Gipuzkoa)

Uliaren bizkar ozeanikoa

ANDER IZAGIRRE

Argazkia: Dani Blanco



DONOSTIAKO PARAJE ederrenetako batean murgilduko gara, askorentzat ezezaguna dena: Uli mendia itsasbazter bakartia.

Nafarroako etorbideko gasolindegian abiatuta, pintura arrasto zuri-gorriek aldapa gora gidatuko gaituzte, tranbiaren bide zaharreraino; ondoren, basoa zeharkatuta, Kumbako Zuloa senaiaren gaineko begira-

tokiraino. Zidorrean aurrera, iraganeko lehen arrastoak azalduko zaizkigu: ospe handia izan zuen Kutraiko iturri orain lehorra eta XIX. mendeko galtzada, Uliako bideak egunero garbitzen dituen Josetxo Mayor jubilatua nahigabeko arkeologian deskubritu zuena. Hark eginak dira xendan maiz topatuko ditugun eskaieratxoak.

Aldapa batean, arrasto zuri-gorriak utzi eta itsasorantz joko dugu, Talaiako

haitzetarantz, bi bota txiki irudikatzen dituzten marka horiak jarraituz. Baleak zelatzeko erabili ziren harkaitz hauetan ikusiko ditugu ibilbideko lehenengo eskultura naturalak: haizeak eta curiak zizelkatutako gangak, leihoak, arkuak... Hareharraren museoan sartuko gara hemendik aurrera, bailara txiki baina sakonetan eta



Gazte Aterpetxeak
Albergues Juveniles
Youth Hostels
Auverges de Jeunesse

ULIA GAZTE ATERPETXEA

Ulia Pasealekua, 297

20013 DONOSTIA

Telef.: 943-48.34.80 / 943-31.02.68

FAXa: 943-21.40.90

www.donostialbergues.org

ulia@donostia.org





itsasorantz burua ateratzeko aukera ematen diguten labarretan.

Zenbat donostiarrek ezagutzen dute Murgitako badia? Inguru horretan estraperloan aritzen ziren baserritarrak bezain bakarti ibiliko gara gu ere. Eta aurrerago, XIX. mendeko Donostia txikiaren egarriak asetzeko eraiki zituzten ubideak eta tunelak zeharkatuko ditugu.

Bi itsasargik adieraziko digute txangoaren amaiera: La Platakoa, amildegi zorabiagarri baten gainean kokaturik dagoen gaztelu baten gisan, eta Senoko Zulokoa, umilagoa, badiaren aho estuan gordeta. Pasai San Pedron zein Donibanen, txakolinarekin eta pintxoekin arindu ditzakegu bideko nekeak. Hiru orduko bidea, asko jota. ■

Ulia mendiaren itsasbazter bakartia, askorentzat ezezaguna.



Lizarraga (Nafarroa)

San Adrian, Sakana gaineko balkoia

GONTZAL AGOTE

Argazkiak: Josu Santesteban



San Adrian talaia paregabea da, Sakana eta haren inguru guztiak ikusteko toki ezin hobea, baita Urbasa eta Andiarako sarbide eta topagune ere.

INGURUAN IZATEN diren ekaitz beldurgarrietatik babesten omen gaitu San Adrianez. Esaerak dioenez, “San Adrian, txikia

baina ausarta”. Lizarragako patroia da santua; haren izena daraman baselizara igotzen dira herritarrak ekainaren hasieran, San Adrianen irudia hartu eta herrira jaisten dute. Bederatziurrena egin ostean, ekainaren 20an santuaren eguna ospatuko dute, baselizara igoz eta egun osoko erromeria eginez.

San Adrian talaia paregabea da, Sakana eta haren inguru guztiak ikusteko toki ezin hobea, baita Urbasa eta Andiarako sarbide eta topagune ere. Balkoi eder horretara ailegatzea erraza da oso, txangorik laburren 40 bat minutu besterik ez dira behar ailegatzeko. Dena den, bada aukera txangoa luzeago egiteko, Etxarritik edo Lizarragatik abiatuta, esaterako.

Lizarragako portura igo behar da lehen-dabizi. Bi aldetik ailegatzeko ahal da,





Ergoienatik, portutik gora, edo Lizarratik, Urbasa eta Andia artean doan errepi-detik. Lizarragako tunelaren ondoan aparkaleku txiki bat dago; hesia pasatuta, pista bat abiatuko da eta handik aurrera ez dago galbiderik. Handik gutxira, pistak Bakaikutik etortzen den galtzada erromatarrarekin bat egingen du. Zertxobait aurrerago dagoen pagadian sartu gabe, galtzada utzi eta eskuinera eginez, berehala aurkituko dugu baseliza txikia.

Handik ikusten den paisaia zoragarria da: Sakana bailara, Aizkorri, Aralar mendilerroa, eta ondo-ondoan, ia eskura, Beriain mendi harroa.

Ibilbide ezin errazagoa, familia osoak egiteko modukoa, apenas 100 metroko desnibela duena. San Adrianetik txangoa nahi adina luzatzen ahal da, mendilerroaren ertzetik: Baitzako gaina egin edo pixka bat urrunago dagoen Santa Marina-ko baselizaraino ailegatu. ■



Sakanako Turismo Bulegoak




www.sakanaturismo.com

Altsasuko Turismo Bulegoa
Tel. 608 17 51 90
 Baratzeko bidea · 31800 Altsasu
altsasu@sakanaturismo.com

Etxarriko Turismo Bulegoa
Tel. 608 007 802
 Nagusia 10 · 31820 Etxarri Aranatz
etxarri@sakanaturismo.com



Mank.
 Sakanako Mankomunitatea
 Urtia 18 · 31830 Lakuntza
 T: 948 46 48 67
 F: 948 46 48 53
www.mankomunitatea.com



Akamarre (Lapurdi)

Bidouze, barnealdeko portua

ITXARO BORDA

Argazkiak: Gaizka Iroz



Ahuzki peko harpe misterioitsuaren ilunetik ilki eta Gixunen Aturrira aurtikitzen den juntaraino, euskaraz Erreitia izena daraman baina nehork ez dit horrelakorik segurtatu Biduze ibaiaren oinez segitzea ukigarria da. Bizitza baten sortzea, garapena eta azkentzea irudikatzen du, harri lehorretan, eiherraz azpildu haranetan eta hirietan barna. Ostibarre eta Amikuze zoratzen dabil, Larzabale, Izura, Jatsu, Donapaule, Aiziritze, Gabadi, Labetze, Ilarre, Bizkai, Erriberrri eta Aranku zeharkatzen ditu, Akamarren jada erreka irekia bihurtzen dela. Bidaxune eta Gixuneko portuak dauzka lehia hurbil.

Akamarreko portua ikusgarria da. Elizaren maldako bidetik jaisten da eta hor dago

Akamarreko eliza ezkerrean. Eskuinean, Port Bidouze; Euskal Herri barnealdearekiko komertzio aberatsa imajina dezakegu oraindik bertan.



lehen, marea goraz balia, Baionatik zetozen gabarren arrima lekua. Ardoa eta bihiak garraiatzen ziren denboran, egurrez eta Amikuzeko oihanetan haziriko urde oparoen haragiz kargaturik itzultzen ziren gero lapurdum ohiraino. Euskal Herri barnealdearekiko komertzio aberatsa imajina dezakegu oraindik Port Bidouze deituaren kaien hegitik ameslari gabiltzanean. Antzinako denboretan euskal hiztunak baziren Akamarren, halaber Portugaletik etorri judutar leinu osoak, Bidaxuneko israeldar hilerrian ikus daitekeenez.

Akamarretik Gixunerainoko arto landen erdian sugetzen doa Biduze handia, borobilka, nagitasunez hantua, txoriek hegaletan itsas usaina dakarkigutela.

Port Bidouze abandonatuak ezagutua iza-tea merezi du. ■

Dima (Bizkaia)

Arratia oinpean, lamiak gogoan

IBAN GORTAZAR

Argazkia: Judit Fernandez




AREATZATIK EDO DIMATIK abiatuta Arratia harana beste haran txiki bitan banatzen duen mendilerro txikia aurkituko dugu. Ilunbe eta Urrekoatxa gainak ditugu bertan, haien azpian irekitzen den haran berdeei so, azken mendeetako gertakarien testigantza miresgarriak eman dezakeenaren lasaitasun eta sendotasunarekin. Areatzatik igoz gero, biderik errazena N-240an Axpe-Goikoa jatetxera bidea ematen

Arratiako bailara ederto batean erakutsiko digute Lamindao auzoko behatokiek.

digun kartela jarraituz egingo dugu, oinez ala kotxez. Behin jatetxea eskumatera utzi eta gero, Lamindao auzoan sartzen gara, aspalditik kon-daira eta istorio oparoen gordeleku, izena bera ere ustez lamien batzar-leku izateagatik ezarria. Baina mitologiatik at ere bertako harritzar eta zuhaitzek badute zer kontatu, hasi gerrate karlistetan izandako gertakari garrantzitsu bezain odoltsuen-gatik, eta gerora ere, XX. mendean izandako anekdota ugariengatik.

Esan bezala, Lamindaoko bihotzera iritsita aurkituko dugu bertako eliza ederra, egur eta harri, txikia, liraina bere xalotasunean. Bi bide aukera genitzake edota gogotsu izanez gero biak, ez baitira sobera neke-tsua (biak ala biak ondo adierazita-koak). Ezkerretara, paseotxo bat eginez Ilunbe tontortxora iritsiz; edota eskumatera, behin hilerria alboan utzita, Urrekoatxa gainera. Lehen lamiak baziren, egun bele, sai eta arranoen itxuran ageri ohi zaizkigu tontorrean. Bi gotorleku, bi behatoki, iragana usainduz gaur egungo Arratia ederto batean erakutsiko digutenak. ■





Bidarte (Lapurdi)

Gaztelupeko hondartza

EUSKAL HERRIKO hondartzen artean bada bat bereziki maite dudana. Seguruenik, ez da ez politena, ez handiena eta ez ikusgarriena izango, baina Bidarte eta Miarritze artean dagoen Ilbarritzeko hondartzak badu itzularaziko zaituen xarma ezkutua.

Labarren gaineko muinoan, itsasargia baitiltzan, misterioitsu eta eder, ageri den izen bereko gaztelua izan liteke arrazoietakoa bat. Enbata sartzen delarik edo ekaitzak jotzen duen egunetan, Psycho filmeko etxearen antz izugarria –hitzaren bi zentzuetan– hartuko diozu. Gaztelua altxarazi zuen Espée-ko baroiak eremu isolatu bat eraiki nahi izan zuen, bera baino hogeitau urte gazteagoa zen Bian Duhamel aktore-sarekin bizi zuen amodiozko istorioa mundutik babesteko.

Gazteluaren aire misterioitsuak bat egiten du hondartzaren edertasunarekin eta itsas barruko harkaitzen harrotasunarekin. Lotsagabe azaleratzen dira hondar artetik, duela hogeitau urte hondartzak “sortu” eta hondarrez “bete” zutenean galdu zuten askatasuna berreskuratu nahiko balute bezala. Komeria ugari izan dituzte urteotan



Ilbarritz hondartza. Ezkerrean, goiko aldean, Espée-ko baroiak altxarazi zuen gaztelua ikus daiteke.

KIKE AMONARRIZ
Argazkia: Gaizka Iroz

udaleko arduradunek hondartza berriro hondarrez betetzeko.

Itsaso bortitzak indar handiz erakarriko zaitu bertara murgilduz gero. Adi eta kontuz ibili, beraz, hurrekin joanez gero. Badute non jolas-tua inguruan. Berdegune zaindu batek eta oinezkoentzako bideak inguratzen dute hondartza. Aparkaleku zabalak gertu dituzu eta etxerik ez hondartza gainean. Arrainkia bazkaldu edo freskagarri bat hartu nahi izanez gero bertan dituzu jatetxea eta tabernatxoa. Ez beti, baina aldiari behin zerbitzari euskaldunak ere topatuko dituzu.

Eseri eta begirada ezkerrean itzulita, Jaizkibelek seinalatuko dizu Gipuzkoako kostaldearen hasiera-puntua, eskuinean, Landetako itsasertzaren marra sumatu ahal izango duzularik.

Itsas ertzetik abiatuz gero, Getariaraino iritsi zaitezke, Bigarren Mundu Gerrako bunkerren hondakinak ikusiz edo kontrako norabidea hartu Miarritze aldera joz.

Eta hondartzan ordu batzuk eman eta aspertu bazara, beti zer ikusia eskaintzen duen Miarritzera joan ahal izango zara; Ilbarritzerantz itzuliko zaren segurantzian. ■

URDAZUBIKO LEZEA
Inundik 40 minututara • Dantxarrietatik 3 km-tara

Argi eta soinu gidatutako bisitak
Urte guztian irekia

Tel. 00 34 948 59 92 41
Leoritas auzoa, z/g • 31711 URDAZUBI (Nafarroa)

Biarritz eta Donibane Lohizune artean...

Barteko bulegoa
Telefonoa: + 33 (0) 559 54 93 85
www.bidartcourts.com

BIDART
EUSKAL HERRIKO HERRIA ITSASO GAIKIN